

KORRIKA... NOIZ ARTE?

Gizarteko gertakari aipagarriei, bereziki euskal alorrekoei eskainiak ditugun orrialde hauetan ezin aipatu gabe utzi, udaberriaren hasieran, hain zuzen ere, martxoaren 26an, ostiral arratsaldean Iruñean hasi eta apirilaren 4ean, igande eguerdian Bilbon amaitu zen «Korrika».

Egia esan oso zer bitxia gertatu izan da beti «Korrika». Hainbeste jende, txandaka, lekuko bati jarraiki, kilometroak eta kilometroak mendiz eta kalez, herriz eta auzoz, neketan, lasterka ikustea benetan zer ulergaitza dela aitortu behar. Eta, hori, kilometroak norberak erosi eta ordainduz!

Egintza horren inguruan, bestalde, ehundaka eta ehundaka kultur iharduera burutu izan dira bazter eta txoko guztietan. Hainbat aurretik, giroa biztuz; beste hainbat ekintza inguruan mezua jaso nahiez. Oso-osorik euskarari eskainitako egun horietan, barren-barrenetik, erraietatik bor-bor sorturik euskaraz bizitzeko harako gogo bizi, egarritsu, sakona nabaritu izan da Euskal Herri osoan zehar estatuen eta herrialdeen arteko muga guztiak gaindituz.

«Korrikak», era berean, euskaldun herritar guztiok elkartu gaitu, euskara plazaratu eta indartu nahiean. Izugarritzko oihartzuna jaso izan du komunikabide guztietan (Euskal Telebistan, egunkarietan, euskarazkoan zein gaztelerazkoetan, euskal aldizkarietan...). Euskara ezin dugula ilunpean, lakaripean gorde aldarrikatzera edo etorri zaigu.

Hain handia izan delarik jaso izan duen oihartzuna eta hainbeste idatzi denez azken «korrika» honi buruz, oso zaila gertatzen ari zait, lerro hauetan inguruetan entzundakoaren laburpenak eginez gogoeta batzu eskaintzea. Egin-eginean ere, hain zabala izan denez Euskal Herrian zehar jaso izan duen erantzuna, bestetik, garrantzitsua den zerbait isilean uzteko kezka sortu zait.

Hori dela eta, hor-hemenka argitaratutako idazlanak bildu eta beraietan irakurritakoen sortatxo biltzera jo dut.

a) Zer da, baina, Korrika?

Aurtengo 8. Korrikaren esangura sakontzen hasi aurretik ekar dezagun gogoera zer dugun sakonean «korrika» deritzagun euskararen aldeko kultur ekitaldia. AEK-k jende artean banatutako paperetan honako hau irakurtzen dugu:

«KORRIKA alfabeatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) antolatutako euskararen aldeko ekitaldia da. Gure Hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola eta euskaltegi ezberdinen eguneroko lana indartzeko dirua biltzea du helburu.

Baina hau ez da dena. KORRIKA ez da ekitaldi bat besterik gabe. 1980an Oñatitik Bilbora Euskal Herri osoa zeharkatuko zuen 1. KORRIKA antolatu zenetik, KORRIKA euskararen alde antolatzen den ekitaldirik jendetsuena eta garrantzitsuena da.

Izan ere, 9 egunez gelditu gabe Euskal Herri osoa zeharkatzen duen lasterketa erraldoia ez da eguneroko ikusten den ekitaldia.



Gau eta egun, 2.100 kilometro baino gehiago korrituz, adin eta mota guztietako milaka jendek parte hartuz, KORRIKAren inguruan sortzen den mugimenduak Euskal Herriko gizarteak bere hizkuntza berreskuratzearen alde egindako apostuaren tamaina isladatzen du.

Baina aldi berean, Euskal Herri osoko gizartea astintzen duen gertakari sozial bilakatu da KORRIKA. Azken edizioan (1992.ekoan), orain arteko jendetsuena, 600.000 pertsona inguruk esku hartu zuen lasterketan. KORRIKAren antolaketan milaka lagun aritzen da, herriz herri eta auzoz auzo eratutako batzordeetan, eta kanpainak irauten duen artean ehundaka jaialdi, kultur ekitaldi eta abar antolatu izan ohi da.

KORRIKA gizarte osoaren partehartzea ahalbideratzen duen ekitaldia dugu. Herri elkarteek, pertsona ospetsuek, enpresek, kirol taldeek, instituzioek, komunikabideek... denek dute euskararen aldeko jai erraldoi honetan beren lekua. Eta KORRIKAK gizartean lortzen duen eragina eta isladak ere ekitaldi honen garrantzia adierazten dute argi eta garbi.»

«Helburuak ez dira aldatu. Korrikak funtsean bi helburu ditu: baterik, Korrika euskararen aldeko sentsibilizazio kanpaia handi bat da eta, bestetik, bigarren helburua AEK sostengatzea da. Hortik, AEK-k gutxi gora-behera bi urtez iraun ahal izateko laguntzak jasotzen ditu.

Hala ere, Korrika bakoitzak luzatu duen mezua egokitu egin da momentu edo egoera horretako beharretara. Zentzu horretan, aurtengo Korrika planteatzerakoan eta gauzak gaur egun dauden bezala egonda, ikusi dugu inoiz baino beharrezkoa dela euskara orokorrean hartuta bere hizkuntzarekiko euskaltzalegoak duen jarrera sendotzea. Nolabait herri honek euskararen alde gin duen apustua masiboa azaleratzea.»

Korrika guztiak euskararen aldeko egintzak izan badira ere, bakoitzak mezu zehatza ekarri izan digu. Aurtengoak ere badu berea. Hona hemen, antolatzaileen arteko biren hitzak:

«Zazpigarren Korrikak luzatzen zuen mezua euskara aurrera ateratzeko proiektu guztiak beharrezkoak zirela zen eta nolabaiteko lotura bilatu behar zela proiektu guztien artean, bakoitzak bere ikuspegitik baina elkarlan bat garatuz euskara aurrera ateratzeko. Eta bereziki helduen euskalduntze eta alfabetatzean AEK-k baduela zeresan eta zeregin handia.

Oraingo Korrika honetan, orohar gauza bera mantentzen dugu. Denok maite dugu gure herria euskaraz, baina horren ondorioa ere ateratzen du Korrikak. Hau da, denok maite baldin badugu gure herria eta euskaraz izan behar badu, denok euskaraz.

Bai, horrela da. Denok maite dugu gure herria, hori edozeinek esaten du. Baina gure kasuan Euskal Herria da gure herria eta maite badugu, maite behar dugu den bezela eta euskara bere ezaugarria da, funtsezkoena.

Bi kontzeptu horiek Korrikarekin nahi gabe erabat lotuta daude. Korrika da Euskal Herri osoa zeharkatzen duen karrera bat, lurraldetasunaren kontzeptua eta hizkuntzarena Korrikan oso lotuta daude. Zentzu honetan, berriro aldarrikatzen dugu Euskal Herrian euskaraz.

Korrikak modu natural eta sinboliko batez dauden muga administratiboak gainditzen ditu, euskarak berak ere gainditzen dituen bezala. Hizkuntzak mugak gainditzen dituen bezala Korrikak ere gainditzen ditu» (Eduardo Condek, Egunkaria, 1993.ko martxoak 25).

b) Korrika aurkezten.

Korrikaren aurkezpenak Euskal Herriko hiriburu guztietan egin ziren; zenbait euskaldetan ere bai. Denetan izan zuten arrakasta handia. Hona hemen Bilbon burutu zen egintzan jasotako hitz batzu:

«Aspaldi honetan behin eta berriro errepikatzen ari garen bezala, euskararen alde lan egiten dugun guztion artean elkarlana beharrezkoa da eta euskaren gaurko egoerak euskaltzaile guztion batasuna eskatzen du. Bi behar hauetatik abiatuta aukeratu du AEK-k Korrika honetako mezua» (...) «Baterik, Euskal Herria eta euskara ezin bereiz daitezkeen kontzeptuak dira. Bata besteari lotua dago, batak bestea osatzen baitu. Bigarren egia, denok gure herria maite dugula litzateke. Inor gutxi esango du bere herria ez duela maite. Bi egia hauek lotuz, Euskal Herria maite badugu euskaraz izan behar dela esan nahi dugu».

«Funtsean euskaltzalegoari orokorrean batzeko ahaleginak egitea eta denon artean, beste kontzeptu batzuen gainetik, elkartzen gaituen gure hizkuntza honetan batu eta euskara aurrera aterako dugula esan nahi diogu».

c) Martin Ugalde omentzen.

Korrikak, aurreko urteetan egin izan zuen bezala euskararen eta euskal kulturaren alde bizitzan zehar lan aparta egin izan duen norbait gogora ekarri izan dugu. Oraingo honetan Martin Ugalde, euskal idazle fina hartu izan du eredutzat. Berezi euskal prentsa bultzatzen egin izan duen lan handiagatik. Martin Ugalde hainbat egintzetan ikusi izan dugu «Korrika» biderik bide lasterketa bizian arineketan ibili zebilen bitartean.

Aipatutako aurkezpenean, zergatik aukeratu duten omentzeko Martin Ugalde azaldu zuen AEK-ko ordezkariak:

«Euskalgintzan egin duen bideagatik, euskaltzale gisa agertu duen prestutasunagatik eta nolabiat, guk bultzatu nahi dugun mezua Ugaldek inork baino hobeto pertsonifikatzen duelako». Antzerako zerbaite gogoratzen digu Jose Azurmendik (Ikus 2. eranskina).

Bilboko aurkezpenean, bestalde, bere euskarazko literatur lanak biltzen dituen «Erroetik mintzo» liburua aurkeztu zuen

AEK-k aurkezle Koldo Izagirre izan zelarik. Martin Ugalde Jnak bihotzez eskertu zuen AEKk bera omendu izatea eta euskarak historian zehar izan duen ibilbideari buruz gogoeta batzu eskaini. (Ikus 1. eranskina)

d) Korrika euskaldunon batasunerako deia.

Hasieran esan dugun bezala, era guztietako pertsonak eta herrialde denetakoek parte hartu duten «Korrikan», elkarren jarraian, elkarren ondoan. Muga guztiak gainditu dituela aitortu daiteke. Azken batetan, euskarak egiten gaituela euskaldun eta euskara dugula gure Euskal Herri honen nortasunaren oinarri eta batasuna aldarrikatzen digu. Denok maite dugulako gure herria, baina, euskaraz.

Antzerako zerbait gogoratzen digu Fernando Barrena, Korrikaren Iruşako antolatzaileak, «euskaltzaleen batasuna ezinbestekoa da euskara normalizatzeko» idazlanean. Bertan honako hauek gogoratzen dizkigu:

«Korrilaren lehenengo edizioa egin zenetik euskararen inguruan aldaketa soziologiko bat nabaritu da. Hasiara batetan euskararen inguruko jarrerak askoz ere polarizatuagoak ziren, eta kontrakotasun askoz handiagoa ematen zen nolabait. Gaur egun euskara modu naturalago batez bizitzen da. Ez da oraindik naturaltasun osoa, baina euskararen kontrako jarrerak desagertu dira, edo gutxienez neutralizatu. Gaur euskararen inguruko mezua askoz ere positiboagoa da.

Denok gure herria maite dugula esaten dugu, ez du inork esanen bere herria maite ez duenik, baina azpimarratu nahi dugu euskara dela guk maite dugun herri honen beharrezko elementu fundamentalak. Euskararik gabe ez litzateke herri hau izango. Gure ustez, euskara elementu integratzaile bat da, eta herriaren kultura bere osotasunean bizitzeko ezinbestekoa da erabiltzea. Bestetik, euskaltzale guztien batasuna beharrezkoa

da euskararen normalizazioa lortzeko, ideia eta bestelako gauzen gaineratik. Hiri da Korrikak, aurten zabaldu nahi izan duen espiritu bateratzailea» (Mundo, 1993-III-28).

e) Korrikaren mezua.

Aurreko orrialdeetan esandakoak eta eranskin gisa eskaintzen ditudan lan laburretan gogora ekarritakoak labur bildurik KORRIKAK mezu oso esanguratsua eskaini digula oraingo honetan aitor dezakegu. Nork baina laburtu mezu horren eduinaka, antolatzaileak beraiek baino hobeki?

Hona hemen esandagoko guztiaren argibide gisa, Korrikari amaiera emateko egitaldian irakurriak izan ziren mezuak. Lehena eskuz esku korrikalarien artean erabilitako lekuko barruko mezua. Hain zuzen ere, Joxemi Zumalabe, EGUNKARIAko zuzendaria izan zenaren hitzak jasoten dituena. Bigarrena AEKko Nafarroako ordezkariak egintzari amaiera emateko irakurritakoa.

«Hemen, euskaldun ez diren denak ez dira etorkinak, euskara galdu duen herriaren zati handi bat badago, deseuskaldunduak dira gure artean gebiengo eta nolabait horrek ere kultura sortu sortzen du.

Euskal Herriko gizartea esparru desberdinek osatua dago - ez bi komunitatek -: etorkinak, bertako ez euskaldunak, euskaldunak, eta giza esparru horiek gurutzatzen dituzten beste batzuk, hala nola, txi-roak, aberatsak, nekazariak, erruralak, urbanoak...

Denok Euskal Herria osatzen badugu gaur egun, denek esan dezakete berena ere badutela euskal kultura. Baina hor errealitate mugatzailea, naziotasuna galtzen ari den herriarena da. Nazio izana zapaldua duen herriarena. Orduan, desnazionalizazioaren aurrean guk bultzatze behar dugun kulturak du garrantzia, euskararen inguruan sortutako kultura litzateke, hau da, nazio izateko behar den kultura. Kulturak

ere bai baitu tresna izaera, gizarte batek bere egituraketa kontzienterako erabiltzen duen tresna. Eta alde horretatik geure apostua euskal proiektu nazionala bideratuko lukeen proiektua kulturaletik dator.

Joxemi Zumalabe

«Arratsaldeon denoi eta zorionaki:

Duela hamar egun ekin genion Iruñean KORRIKARI. harez geroztik gau eta egun, 2.120 kilometrotan Euskal Herri osoan zehar, eskuz esku, auzoz auzo, herriz herri, pausoz pauso, eraman dugu ozen eta alai bezain tinko euskararen lekukoa.

Gure herria maite dugulako egin dugu KORRIKA. Gure herria Euskal Herria izateko, euskaraz izan behar duelako, egin dugu KORRIKA. Helburu horren atzetik lanean jende asko dagoela erakusteko, antolatuta dugu KORRIKA. Herri honek etengabe euskararen apostua egiten duela adierazteko, atera gara korrika.

Gure sentipenei adierazbide bat eskaini diegu, eta sentimenduek grina pizten duten bezala, gure buruak koherentzia emanaz, ideiak eta proiektuak praktikara eraman behar ditu. Hor dator KORRIKAREN osteko apustua, horrela ulertu behar da gaur KORRIKAREN azken jaiari esaten duguna, hots, DENOK EUSKARAZ!

DENOK EUSKARAZ! erdaldunek euskararen bidea jorratu behar dutela esan nahi du.

DENOK EUSKARAZ! euskaldunok euskaraz bizi behar dugula esan nahi du.

DENOK EUSKARAZ! aurreko biak errealitate izan daitezen bidea jarri eta lana egin behar dela esan nahi du.

Herri honek bere hizkuntzarekiko konpromezua hartua dauka. Herri hau proiektutan eta ekimenetan aberatsa da,

euskararen alde lanean, ez du etsiko! Baina euskara batu genuen bezala, euskarak batzen gaituen bezala, bada ordua proiektu guztien artean elkarlanerako bide batua ere bilatzeko, izan ere, indar guztiak behar diren bezala, indar guztiak euskararen berreskurapenaren norabide batuan eraman behar dira.

Hau da AEKk luzatu nahi izan duen mezua. Bide bilatze horretan AEKk bere ahaleginak egiteko konpromezua hartzen du.

Euskara ikasi, euskaraz bizi eta elkarlanean aritu.

Hasieran esan dugun bezala, bukatuko dugu, KORRIKAN «sinbolikoki» adierazi duguna, errealitatean garatu behar dugu, garatzen ari gara, eskuz esku, auzoz auzo, herriz herri, pausoz pauso.

Zorionak berriro ere, ondo pasa eta GORA EUSKAL HERRI EUSKALDUNA!»

Azken hitzak

Horrela bukatu zaigu aurtengo korrika. Irrintzi ozena, indartsua izan dugu. Oraindik zer egin ugari dugu bazterretan Euskal Herri hau euskaldun egiteko. Gure herria «euskaraz» maitatu ahal izateko.

Gure agintariak oso gogoan hartu beharko lukete, herria euskalduntzen ari diren talde guztien alde jokatu beharko luketela. Ezin dutela, benetan herria «euskaraz» maite baldin badute, azken urteotan egin izan duten bezala, milaka eta milaka ikasle dituen AEK baztertu eta diskriminatu.

Herriak jakin du AEK txalotzen, beraren lan oparoa eskertzen eta aurrera egiteko arnas berria eman dio. Herriak Euskal Herria euskaraz ikusi nahi du, Euskal Herri euskalduna nahi du. AEKren mezua barru-barrutik ulertu eta egin dion irrintzi bortitzari oihartzun ozena eman nahi izan dio. Nik ere beste hainbeste opa diet lerro hauen bidez.

Eta hasierako galderaz zer? Zuk zeuk erantzutekoa duzu.

Eranskina: Oso ugariak izan direnez Korrikaren inguruan argitaratu izan diren lanak, hemen beraren mezuaren oihartzun gisa, jarraiko hauek eskaini nahi dizkizuet. Lehena, urte honetan omendua izan den Martin Ugaldek Bilboko aurkezpenean esandako hitzak. Bigarrena, Jose Azurmendik Martin Ugalderi eskainitako omenaldiari buruz idatzitakoak eta, azkenik, nik, neuk Korrika ospatzera animatzeko Bizkaiko Aldundiko lankideei zuzenduak:

Patxi Uribarren

"Euskara ez da beti korrika ibili. Gure sei mila urteko hizkuntzak historikoki egin duen gaizakeria bakarra Erromako inperioaren hizkuntzara, latinera, ez makurtzea izan da. Europako beste herrietan beren hizkuntza galdu eta latina aberatsa hartu zuten artean, euskaldunek bereari eutsi zioten. Hau da gure bekatua.

Erresistentzia honek, gero, mendez mende, jarraitu du azken bi mila urte hauetan, eta erdara joan zaito igotzen Mediterraneoetik gorantz administrazioko defentsarik gabe. Gure inguruko gainontzeko latina poliki-poli, mendez mende, katalanera edo gaztelera edo gailegoera bilakatzen itxogitea izan da, baina geure herriak traun egin arazo dio bere hizkuntzari gaur arte eta bide zailetik. Ezagutu ditu umilazioak milaka, ezagutu ditu jazarpenak, gudak.

Azken 150 urteetan gerra; karlistek eta liberal askok, nere aitona nafarra lekuko, euskaldunen hizkuntzan egin zuten borroka; eta gero eskoletan eraztuna bidez izan zen jarraitua: faxisten gerran euskaraz idazle izateagatik fusilatutak ere izan ziren; gure herrian jarraitua izan da orain hogei urte arte, kartzela bidetatik, askotan herrastaka, permisoa eskatu eta ukatua... Gure bertsolari inprobisatzaileak ere aurretik zertaz ariko ziren poliziak galdezka; madarikatu zen euskara, eta orain hogei urte arte, ikastola mirakulosoak bide zailetik eskolaratu zigun arte...

Eta gaur, oraindik erasopean jarraitzen du "askatasunaren" izenean. Historia kontutan hartu gabe, erdaldunen betiko abantailaren aurrean kizkurtuta dauzkate gaurko gure politikoei espainola eta frantsesaren aurrean.

Egin dira lanak, eta onak: ikastoletatik hasi eta gora gauza bat baino gehiago oso onak direnak, eta hauen artean, aspaldi lanean ari den Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak jarri zuen Euskal Herri osoan Korrika.

Aurtengoa: "Denok maite dugu herria euskaraz!!" lemapean

Hau da AEKko emakume eta gizonen aurtengo Korrikaz hitzegin zidatean kontuan eduki eta orain garbi esan nahi nuena.

Zorionak AEKn irakasten eta ikasten ari zareten guztiok, zeuek ez zarete euskararen langailu bakarra, baina zeuek ere bazarete eskubide osoz euskararen zerbitzari leial eta langile. Eskerrak mila zuei"

Martin Ugalde

KORRIKA MARTIN UGALDEREKIN

Hainbeste jendek meretziko luke eta pena da denen izenak ez dagoela esaterik ere. Udaberria bezala da: nequondan saratsa ergiz mugitzen hasten da loratzen otea, hostoa, berdetzen mendiko belar higatua. Euskal Herri osoa lehentxeago lurralde guztia mugimenduan jarri da hankazarata batean, milaka lagun korrika, udaberria esnatu eta zabaldu nahita.

Euskalduna mendietan korrika dabiltzen piztia bezala deskribatu izan digute. Gero sarri profetizatu izan dute animalia jenero bitxi hori laster gaitzeko zegoela, euskalduna. Baina, korrika segitzun du bizi-bizi mendietan piztiak.

Eta hainbeste jende da korrika horretan meritoz betetzen dena, denak ez bait dago aipatu eta ohoratzerik. Denon izenean Martin Ugalde ohoratuko dugu; animalia noblea, izpiritu ederra.

Korrika honetan Martin Ugalde aspaldion aritu zaigu korrika luzea korritzen beti aurretik -neska zein mutil, zahar hala gazte, denok gara irabazte txapelidun, lasterketa hau ez bait da inoren kontra, bai denen alde.

Saibu: geure erretxin ipurtestu konplexu batzuk (beti egoten dira), edo euskalduna soporatzen ez dutenak, hainbat gutxiago korrika badabil.

Beste denok, etxeoandreak, alfabetakumeak, eskolaitonak idazkurleak, ahal dugun moduan auskaraz korritzen dugunok eguneroko gure korrikatxo nahasia, denok aurkilzen dugu geure burua Martin

Ugalde ondraz ordezkaturata. Tuteran hala Baionan, eta Beasainen bezala Agurainen eta Sapturtzin. Denok sentitzen gara ohoratua eta guztioz pozten gara guztion festa honetan Ugalderekin.

Ugalde baitan auskalgintzaren ezaugarriak positiboak eta maitagarriak ospatzen ditugu inkarnatuta: irekitasuna, gozotasuna, baita iraupena. Estetika eta borroka. Dohain altuak eta entregu apala. Mundu-zabaltasuna kulturari eta atxekitasuna bihotzean irme lurrari. Euskaltzaletasuna poliukaren gainetik. Muga txikien gaindikotasuna. Abertzaletasun zaharraren eta berriaren segida. Ausardia eta sakrifizioa: batere gustatu ezin zitzaizkion arazoetan ere buru-belarri sartzeko, euskarak hala behar zuela ikusi duenean.

EGUNKARIAn esate baterako. Jende arras diferenterekin kolaboratzeko gaitasuna. Sentsibilitate ezberdinean armonia. Kontraesanak eta teinkak ongi ezagutu baina ezikusteko handitasuna hots, bere-bere izpirituaren dotoretzia pertsonal hori, animako eleganzia.

Asko eta asko dira, euskara bizi dadin lanean, meritoz betetzen ari direnak, ez bait dago haien guztien izenak esaterik ere. Martin Ugalderekin irudi eta eredu, Korrikak, hots, guk denok, euskaren korrikalari eguneroko guztioz, euskalgintza osoan eta Martini, omenaldi bat ematen diogu eta lezio bat hartu. Eskerronez.

Jose Azurmendi (Egunkaria, 93-III-25)

"Denok maite dugu gure herria euskaraz"

Bai. Denok maite dugu gure herria. Denok jaso nahi dugu Korrikak egin digun irrintzia. Denok izan nahi dugu irrintzi horren oihartzun ozena. Horra hor, atean, KORRIKA euskaldunoi gure aberria "euskaraz" maite behar dugula gogora ekarriz.

"Euskadi euskaldunon aberria", "Denok maite dugu gure herria euskaraz", "Euskal Herria"... Ba ote Euskal Herririk euskararik gabe?

Aurtengo KORRIKAK mezu sakona, deiadar indartsua, dema bortitza jaurti digu euskaldunoi, amets usieleian, aulki bigunetan, gogo moteletan loak har ez gaitzan.

Korrikan dabilenari ez zaio arnasarik isiltzen, odolik geratzen ezta bizitazunik moteltzen. Hala ikusi nahi genuke KORRIKA egileok euskara: bizi-bizirik, odola zainetan bor-bor eta ahoetan parra-parra. Arnasesturik gabe, zoli-zoli Euskal Herriko etxe eta kaleetan, hiri eta baserrietan, itxaso eta mendietan.

Elurraren ostean ur garbiak urtuz maldaz behera jauzkari, kantari, aloitsu eta pozik datorren errekatxoaren antzera. Ez dugu ibai handi, geldi, nagi, kiratsu, zikineta murgildu nahi. Bizi-birik, euskara bizi dadin KORRIKA egitera jo nahi dugu.

Bizitasuna dugu amets, nonbait, euskaldunok! Hori dela eta, ditugu hainbeste hitz KORRIKA adierazteko: arineketan, lasterka, arin-aringa, atxintziketan,...

Baina, KORRIKA zertarako? Euskaraz bizitzeko; euskaraz bizi gure herria maite dugula erakusteko; herria maitatuz euskara bere magalean babestu eta zaintzeko.

KORRIKA, jadanik ez dugu AEK-ren egintza. KORRIKA gure egintza, herri osoak berea eginiko egintza dugu. Euskararen alde martxan jarritako lehiaketa lasterra. Euskal Herriko muga guztiak gaindituz "Herri bat gara" eta "Herri euskalduna" izan nahi eta behar dugula dogora ekartzen digun egintza.

KORRIKA, bai, baina ez kilometro bat edo beste bakarrik. Lekukoa aldean hartu eta euskarari bihotzean ez ezik gogoan eta ahoan egin behar diogu leku. Euskararen abiadura bizkortu behar dugu, gure herria euskaldun bilaka dadin.

Euskaldun izateak, euskara ikasteak odol berriz eta arnasa osasuntsuz bete behar ditu gure zain eta bularrak. Horrela egingo ditugu kilometro ugari arnasestu eta nekerik gabe, euskara gure eguneroko mintzaira eta bizilagun izango baita. Horrela egingo dugu egia "Denok maite dugu gure herria euskaraz".

Patxi Uribarren